

Lanaldia



Lanaldia

Kanpai-hotsek markatzen zuten eguneroko bizitzaren erritmoa: egunsentia iragartzen zuten aurrena, angelusaren ordua eguerdian eta etxeratzeko garaia ilunabarrean. Asteko atsedena larunbat ilunabarrean hasi eta igandean amaitzen zen, bezperen ondoren. Liturgia-egutegiko jaiegunetan meza-elizkizuna egoten zen goizean eta olgetarako hainbat ekitaldi ondoren, hala nola dantzaldiak, entzierroak edo jokoak. Joko horien artean karta-jokoak, xakea edo dado-jokoa zeuden, besteak beste. Erregeak jokotxe bat (*tafureria*) zuen Tuteran, eta dirutza handia jasotzen zuen handik. Beste herri batzuetan, ordea, debekatuta zeuden halakoak, morala eta ordena publikoa kaltetzen zutelako.